






Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/2/18 | 338

- | | |
|--|---|
|  | Txomin Garmendia eta Antton Izagirre |
|  | Hara, zergatik ez euskaraz? (V) Asegurugintza |
|  | Dantza, Lizartzako lhauterien ardatza |
|  | Jaten duguna gara |
|  | Anoetako Dantza-Soka eguna |

Abiadura handiak
a_ztoratutako lurrak

IÑAUTERIAK

2011

Jaiak

Elbarrena industrialdea 72-1 - Telf: 943 888232 - Zaldibia

jaiak@jaiakdenda.com - www.jaiakdenda.com

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

HAPPY DAYS

15 URTEGAN SALMENTETAN LEHENA. AUTOMOBIL KOMERTZIALETAN.

OSPAKIZUN BAT MEREZI DU.

Akzio eraren da 15 urte, 15 urte baino gehiago, 15 urte zuzen, zehaztasun handiaren erantzun, denek lehiatzen diren 15 urte profesional, gero erakundearen, profesionalitatearen eta erakundearen irizpateak. Duplekuzin bakoiti bakoiti duen 15 urte, urteko fakturak bakoiti bakoiti duen gero fakturak duen automobil komertzialak.

11.2010ko abendu, eta abenduaren 31ko amaierako salmentetan erabiltzeko daturak.

Oferta Berezia PSA Finantza Irabazteko Irabazteko: Berlingo Fiat Condo 4 urte garrantzia: 11.499.77€ Kapital Inbertsioa 4.880.20€ 39% 4.827.40€ Inbentzio konposua 1.3 Inbentzioa 256.41€; gutxi garrantzia: 12.888.57€. Bostakoa inbentzioa: Berlingo Fiat Condo 4 urte garrantzia: 11.499.77€.

99€ HILABETEAN

IROVI, S.A. CITROEN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIA GUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA

galtzaundi
EUSKARA TALDEA

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igarua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
AZAL
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.


TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:
Abiadura handiak aztoratutako lurra

Amalurra eta amak emandako lurra. Lurrekiko harremanak ezberdintzen dituen bi ereduak talka egin dute Abiadura Handiko Trena eraikitzen ari diren eremuetan. Lurrekin harremanetan bizi direnak eta trena eraikitzeko joan-etorrian dabilzanenak.

8-11. orrialdeak

Bieito Romero Luar Na Lubre talde galiziarreko kide dugu; gaita, akordeoia eta zarrabetea jotzeaz gain abesti askoren konposatzailea da. 'Solsticio' lan berriaren biraren hasieran murgildurik dauden honetan taldearen 25 urteko ibilbideaz eta musikak eta hizkuntzak herri baten izaeran duen garrantziaz mintzatu gara berarekin.

Bieito Romero

14-16. orrialdeak

	Irtziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Antton Izagirre	4-5
	Normalizazioa: Imanol Haro	6-7
	Eskualdeko albisteak: Dantza, Lizartzako Ihafterien ardatza	12-13
	Koxk: Jaten duguna gara	17
	Kultura: Anoetako Dantza-Soka eguna	18-19

Bertsolariak berri-emaille



Txomin Garmendia
Bertsolaria

Gertakizun nabarmenik baldin bazan-edo, apusturen bat, ezkontzaren bat galdua eta abar, bertsolariren batena joan da bertso berriak jartzeko oitura zan. Erantzunak ere, izaten zituzten askotan; mingarriak ez gutxitan. Gure garaiak arte iraun zun esaera onek, zerbait nabarmenik egiten baldin bagendun: "Bertsoak jarriko zizkigutek". Asarreak, asarre, gure erriaren istori aundi bat agertzen dute bertso oiek eta Auspoaren saillean badegu orretatik aukera.

Oraingoan, bi bertsolariren jokaerak argituko ditut; Arantzazuko aitona bat zan Gezaltzako Graziano, eta bere bertsoak "Arantzazu" errebistan argitaratzen ziran. 1951'ko urtea zan, gazte artean gabardina jatzeko oitura zegoen jai-egunetan eta abar; Grazianok, gabardinarekin zebiltzan basarriko gazteak zigortu zitun amalau bertsoetan; estalgarri eder orri, "asto-manta" izena ere jarri zion. Adibide bezela, aitona ireu bertso jarriko ditut.

Nekazaria kale-jazkeran nola jartzen dan ain zarkin, ematen dute ote dijoan asto bat krabeliñakin, kaletarrakin bildutakoak nola ibilli ez jakin, aiek bai parre egiten dute baserriko leluakin.

Nekazariak ibillitzia nun bizi diran aztuta, korbata, pultzera, pitxi ta abar buruak ondo orraztuta, lepotik bera oñetaraño asto-mantaz estalduta,

zaku-patatak ematen dute atzetik begiratuta.

Aditzak, mutil baserritarra, nun bizi aizen ez aztu; jai-egunetan parrandarako kaletarrekin ez nastu; ez tabernara, ukullura jun, txekor da beiak orraztu, bestela zorra nagusi dala bizi bearko dek estu.

Bertso sail oni Basarrik eta beste bi gaztekerantzun zioten, beste amalau-na bertsoekin "Arantzazu" errebista orretan. Basarriren sailletik aukeratu ditudan beste iru jarriko ditut jarraieran.

Jazkerak lendik egonagatik erabat txit aldatuak, gabardinazko estalgarriak etxe askotan sartuak; oiek ez dira ortaño gogor zigortzeko pekatuak, bruxa beltzaren azpian ere danak ez daude santuak.

Kaleratuta or asten dira neurritz kanpora edaten, edozein baño gehiago dira birau gordiñak esaten, lanak dituzte kaleko kargak baserrira eramaten, ala dabiltzan bruxa beztunak ez dute ederki ematen.

Fede biziko gazterik ezta edozein moduz narrasten, neurri estuko kontseju oiek ez ditut ondo ikusten; gazteak noizpait jakin bear du kristau bezala jolasten, jaiak ukullun pasatu gabe txekor da beiak orrazten.

Ez pentsa, Basarri eta beste biren erantzunakin aitona limurtu zutenik; Grazianok zorroz erantzun bai zien beste amalau bertsoekin. Ara nola:

Nik ez det esan gabardinadun danak alperrak dirala, bruxa baltzari moskorkeria zuk bota diozun bezela, esan dedana baserritarrok jator jantzi gaitzela, gure bizitza aldapa bera amilduko da bestela.

Begira danok gazte batzuek aitona zarra zapaltzen, Basarri jauna maixu artuta nola etorri ziñaten, itxusikeri aundientxuak orain ez noa esaten, zirikatutzen banaute berriz esangoitut beste baten.

Graziano, 1965'an il zan la-rogeita zortzi urterekin (G.B), ezagutzeko zoria izan nun bere basarrian il aurretik gaxo zegola; sendatzen zanean bazkari baten biltzeko gelditu giñan, baiña ez gendun zorion ori izan. Bertsoetan jardun nitzaion, azkena kantatu nion bertsoaren bukaera gogoan det:

Aiton maitea nik berriz ere, Zurekin nai nuke parte, Ala komeni ez bada berriz, Zeruan ikusi arte.

Ala izan dadilla. ☺

Lortu Arte

Askorentzat utopia izan daitekeen honek, formulazio oso simplea du politikan ari den edonorentzat eta hitz gutxitan esanda herritar xumeenak ere, horrela uler lezake: "proiektu politiko guztien arteko konfrontazio politiko askea eman ahal izatea ariketa demokratikoa izateaz gain, baliagarria da gatazka politikoa errotik aldatzea ahalbideratzeko. Bestalde, proiektu politiko horiek biolentzia eta kanpo injerentziarik gabe, soilik bide baketsuak, politikoak eta demokratikoak erabilita, eta pertsona ororen giza eskubideak errespetatuta gauzatu ahal izateko proposamena da". Hau da, egungo demokrazia gehiengoaren borondatearen errespetuan oinarritzen bada, errespetu dezagun Euskal Herriaren gehiengoaren borondatea, beti ere, aukera guztiak, independentzia barne, modu askean gauzatzea ahalbideratuz. Ba ote dago hau baino proposamen demokratikorik?

Proposamen honen bultzatzaileentzat independentzia ez da hitz hutsa, bere baitan barneraturik baitaramatza gainerako osagarriak ere: politika soziala justua eta ekitatiboa, lurra eta baliabide naturalen antolaketa eredu iraunkorra, jendarte parekidea, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzeko konpromisoa, euskara eta kultura sustatzeko neurriak, migrazioa eta aniztasunaren aldeko errespetu, belaunaldi berrien hezkuntza eskubideak bermatzeko apustua, gazteek

iritzia modu askean emateko duten eskubidearen aitortza, etab. ...

Behin proposamena aurkeztu eta gero, askok egin lezakeen galdera bat datorkit burura, utopia ote XX. mendean European Euskal Herriaren independentzia gauzatzeko borondate politikoa? Inondik inora ez. Alderantziz, gaurkotasun handiko proposamen errealista da. Gehiago esango nuke, Euskal Herria estatu bilakatzea bere nortasun ikurrak diren euskara, euskal kultura, luraren babesa eta gizarte justuagoa lortzeko ezinbestekotzat joko nuke. Hori ezean, estaturik gabeko herriak asimilazio eta desagertze prozesuan baileudeke epe oso ertainean.

Bestalde, European sortu berri diren hamar estatuak: Eslovakia, Eslovenia, Lituania, Kosovo...egitura juridiko politikoak lortu dituzten bezala, Euskal Herriak, Katalunia, Ipar Irlanda eta Eskoziarekin batera, badute haien antzera baldintza eta borondate nahikorik, bide horretan aurrera egiteko.

Arazoa ez da egon azken urtetan independentzia lortu duten herrialdetan, ez eta ere aurrerantzean lortze bidean dauden artean. Arazoa egotekotan, egun barnean mantentzen dituzten estatu eredu egon daiteke. Eskoziaren, Quebecen, Ipar Irlandaren, Groenlandiaren eta Flandesen kasuetan nortasun nazionala aitortzen zaien bezala, Euskal Herria eta Kataluniaren kasuan



Antton Izagirre
Irakaslea

Hala deritzo Eusko Alkartasunak eta Ezker Abertzaleak, Euskal Herriko jendarteari aldaketa politiko eta soziala bultzatzeko egin dioten eskaintzari. Baina zer lortu arte?- galdetuko du batek baino gehiagok. Ba independentzia erreferentzia gisa hartuta, indarrak bildu eta aldaketa sakonak modu demokratikoen bitartez lortzeko garaia dela uste dute bultzatzaileek. Garaia heldu dela gehiengo soziala eta politikoa aktibatzen eta herrigintzan inplikatzeko, jomuga berrien inguruan ilusioa eta kemena herritarroi kutsatzeko.

Espainiaren erantzuna guztiz ukatzailea da, Espainian Nazio bakarra dagoela aldarrikatzen delako.

Beraz, Espainiak eta Frantziak dute arazoa Europako edo Munduko beste lurralde batzuen demokraziari parekatzeko.

Horretan datza korapiloa, baina hori da aldi berean Lortu Arte akordioaren bidetik askatu ahal izango dena, askatzen saiatu behar duguna. ☺

Hara, zergatik ez euskaraz? (V) Asegurugintza

Imanol Haro

UEMAko hizkuntz normalizatzailea

Zenbat aldiz sinatu dituzu gaztelania hutsezko aseguruak? Zergatik ez dizkigute eskaintzen agiri berberak euskaraz? Badaukagu eskubiderik aseguruak euskaraz izan ditzagun? Aurreko aleetan, hizkuntz eskubideak zer diren eta arlo jakin batzuetan euskaldunok ze hizkuntz eskubide ditugun izan dugu hizpide. Gaurkoan, asegurugintzako agirietan euskararekin zer-nolako betebeharrak dituzten ikusiko dugu (auto aseguruak, erantzukizun zibileko aseguruak, etxeko aseguruak...).

bada, badago biderik euskaraz tokia izateko.

Eta Tolosaldean, zer?

Tolosaldean, Euskal Herriko gainerako tokietan bezala, Kontseiluak, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak eta Ziurtagiriaren Elkarateak "Euskaraz seguruago" ekintza plana jarri zuten abian 2009an, aseguru etxeetan euskararen aldeko neurriak eragiteko. Helburu nagusia aseguru etxeek eskaintzen duten zerbitzua euskaraz jasotzea zen, eta, horretarako, eskaerak sustatzeko eta bideratzeko konpromisoa hartu zuten eragileek.

Herriz herriko dinamiken bidez, norbanakoek, enpresek, saltegiek eta bestelako entitateek 624 aseguru euskaratzeko eskariak egin zizkieten 75

aseguru etxeri. Hortik aurrera, Kontseiluaren esku geratu zen aseguru etxeekin harremanetan jartzea, eskaera betetze aldera.

Oraindik ere badago auktora Kontseiluaren webgunean eskaerak egiteko (kontseilu.org). Bertan, eskaera bideratzeko argibideak izango dituzu.

Zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea bermatu ahal izateko, komeni da jarrera aktiboa hartzea eta kexa egitea. Horretarako, aurreko aleetan ere nabarmendu dugunez, enpresek derrigorrean eskaini beharreko erreklamazio bideak aprobetxatu ditzakezu. Gainera, zure kasua Hizkuntz Eskubideen Behatokira (902194332) edo Elebidera (012) ere bidera dezakezu.


Zein da legezko egoera gaur egun?

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak egindako azterketen arabera, legezko irakurketan Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria bereizi behar dira.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Frantziako Estatuak, ohiko moduan, frantsesaren derrigorrezko erabilera besterik ez du ezartzen. Horren ondorioz, euskararen presentzia hutsaren hurrena da.

Hego Euskal Herriari dagokionez, berriz, aseguru etxeek

eta aseguru bitartekariak balizko aseguru-hartzaileari aseguruaren inguruko legezko aurreikusitako informazioa euskaraz eskaintzeko derrigortasuna dute, aseguru kontratua egikaritu aurretik. Bestetik, aseguru hartzaileak legez aitortua du aseguru poliza euskaraz jasotzeko eskubidea. Poliza euskara ofiziala den lur eremuan egiten bada (Tolosaldean, kasu), aseguru hartzailearen eskubidea, nahia edo hautua aseguru hartzailearen betebeharrak bihurtzen da. Poliza euskara ofiziala den lur eremuan formalizatzen



Korrika laguntzaile pinak Galtzaundin eskuragai

Korrika laguntzaile pinak Galtzaundiko egoitzan salgai dardate. Eskaria aldeztu aurretik telefonoz egitea beharrezkoa da -943 65 50 04-. Laguntzaile egiten diren guztiek, 12 euroren truke, laguntzaile direla adierazten duen pina, urtarriletik aurrera Euskal Herriko ehunka komertzioetan behar bezala izatea ahalbidetuko dien Korrika Laguntzaile txartela, eta txartela erabili ahal izango den komertzioen zerrenda duen katalogoa eskuratu dituzte.

Zozketa




Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Ongi etorri Pupu eta Lore
Cd-ak banatuko dira Galtzaundira
-943 65 50 04- azkarren deitzen duten bazkideen artean.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Irrien lagunak
Cd-ak banatuko dira Galtzaundira
-943 65 50 04- azkarren deitzen duten bazkideen artean.



Asisko-Mattin Irigoien-Adur
Okatxu hegaltzailearen
Jose M^a Díaz Vicuña



Gutierrez&Redondo Aritz. Nayarit-eko altxorra
Rosarito Odriozola Yeregui



Juan Mari Ansa
Las Malloas de Aralar
Mikel Goikoetxea Onsalo



BENTA ALDEA
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



errrotatxo okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

Abiadura handiak aztoratutako lurrak

Amalurra eta amak emandako lurra. Lurrarekiko harremanak ezberdintzen dituen bi ereduak talka egin dute Abiadura Handiko Trena eraikitzen ari diren eremuetan. Lurrarekin harremanetan bizi direnenak eta trena eraikitzeke joan-etorrian dabiltzanenak. Obrak hasi aurreko egunerokotasuna apurtuta, "kamioien, makinarien eta polizien 24 orduetako joan-etorriak eta dinamita leherketak noiz amaituko zain" dira Jaione Lurramendi eta Aitor Esnaola. Hurrenez hurren, Tolosako Aldaba auzoko Uganen eta Legorretako Beroztegi auzoan bizi dira, Abiadura Handiko Trena eraikitzen ari diren inguruetan. "Informazio ezarengatik, gainera zer etorriko beldurrez" dira, berriz, Tolosako Olarrainen bizitokia duen Xabier Otegi eta Igaro Balda hernialdetarra.

Igor Mujika

Jaioneren esanetan, "gure auzoa ez dago obra gunean. Obretara joateko, ordea, gure auzora daraman bidetik pasa behar dute eta etxerako bidean arazoak izaten ditugu. Bidea kotxe baten-tzako da, zabalguneez batzuk badiren arren. Masadora, kamioiak, palak, poliziak,... denak aurrera eta atzera topatzen dugu elkar. Normalean

oso begirune gutxi izaten dute gurekin. Lehentasuna beraiek izaten dute eta beti atzetik eta letxe txarrean ibiltzen gara". Horrek guztiak izan du ondorioz. "Nik, adibidez, hiru seme dauzkat. Obrak hasi aurretik, errepi-dean gora eta behera ibiltzen ziren bizikletan. Orain, bidea dagoen bezala, loka-tzagatik nahiz trafikoagatik

eta batzuek darabilten abiadurarengatik, ezinezkoa da". Jaioneren arabera, "nazkanazka eginda gaude. Kotxea garbitu eta garbitu, besterik ez dugu egiten".

Aitor Esnaolak, berriz, obra hauek eragindako estresa nabarmendu du. "Nigan, gurasoengan,... estresa erabatekoa da. Ahozko komunikazioaren galera ere

izugarria izan da. Gai honen inguruan ez dugu gure artean hitz egiten. Tabu bilakatu da. Goizean jeiki, atarira atera eta hor aritzen dira,... Eta, horretaz ezin hitz egin ahal izatea,... izugarria da. Nik oraindik ez dut asmatu egoera hau, estres eta osti txar hau nola bideratu. Eta asmatu beharra dut, bestela lehertu egingo naiz. Ardiak noiz atera ere pentsatu egin behar izaten dut: eguerdian aterako ditut, bazkaltzen izango dira eta. Bestela ezin dut!".

Akten altxamendu fasean da Xabier Otegi eta, azaldu digunez, "mamua gainean dugulako kezkatzen hasiak gara. Eguneroko bizimodua nola aldatuko den beldurra dugu. Lurra maitatzeko, ohi-tura batzuk,... dituzu eta, bat batean, beraiek gure lurren jabe bilakatuko dira". Xabierren iritzian, "bulegoa, erosotasuna eta diruaren, eta, lurra eta haize sanoarekin lotutako gure bizimoduaren arteko talka da. Bi munduren arteko talka da".

"Egun batetik bestera, segituan, gure bizimodua aldatu egingo denaren beldurra" du ere Igaro Baldak. "Zenbat denborarako? Hori jakin nahi dugu. Denborazko okupazioa, desjabetzea edo zer delakoa izanik ere, zenbat denboraz luzatuko den jakin nahi dugu, eragin zuzena duelako norbera-




ren bizitzan: artoa egin nahi badugu maiatzean, patatak erein martxoan edo belarrak udaran. Baina ez dakigu noiz, zenbat denborarako eta zertarako datozen ere. Oso kezkatuta gaude".

Igaro Baldak azaldu digunez, "Abiadura Handiko Trena herriko plazatik 2 kilometro ingurura pasako da -linealki begiratu gero- baina denborazko okupazio gehienak herriko plazaren ondoan egingo dituzte. 2004ko informazio baten arabera, zabortege bat egitekoak dira hemen. Ez digute zundaketak zertarako egin behar dituzten esan eta, ondorioz, lehen entzundako gauza guztiak datorzkigu burura. Oso kezkatuta gaude informazio ezagatik".

Iritzi berekoa da Xabier ere. "Bat kamera batekin, hurrena bi kotxe, menditik argazkiak ateratzen,... Beti ezkutuan eta gezurretan, gauza batera datozela esan eta, bitartean, beste bat egitera etorri dira. Denontzako ona bada, horrela ibiltzeak harritu egingo nau". Desjabetzeen nondik norakoez hitz egitean, Aitorrek bere esperientziaren berri eman du. "Gobernuaren Donostiako azpiordezkaritzara deitu gintuzten akten altxamendua egiteko. Horretarako terrenoa bera baino eremu egokiagorik ez dago, ordea. Nik Donostiako pisu bat hemendik baloratu behar al dut? Ikusi ere egin gabe? Horregatik, hara deituak izan ginenean, gure lurreta-

euskararen
sematoroa
euskararensematoroa
blogspot.com



Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor

eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

shanti
kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa

Denborari irabazten dioguna denborak irabaziko digu

Josu Gila (EHNEko kidea)

Gaur ez dut idatziko AHT bultzatzen duten politikarien kontra edo AHTren eraginak gutxitzea helburu duten politikarien kontra edo AHTz aberastuko diren eraikuntza enpresen kontra edo banketxeen kontra. Ez dut aipatuko AHTn erabilitako dirua arlo sozialean faltako dela, ingurumenean eragindako kalteak itzuliezinak izango direla. Ez dut hamaikagarrenez errepikatuko AHT inposaketa dela, obrak militarizaturik daudela, herriaren hitzaren gainetik indarkeria erabiltzen dutela. Ez dut salatuko errepresioa geroz eta handiagoa dela, auzitegi nazionala gertutik ezagutzen ari garela eta espetxeak ere gure zain daudela.

Gaur ez. Gaur gure alde idatzi nahiko nuke, baserritarren alde eta herritarren alde. Ekoizleen alde eta kontsumitzaileen alde kapitalismoaren hiztegiaren arabera. Baina bereziki mundu berri bat bihotzean daramatenen alde. Autokritikatik. Beti besteei (agintariei, kapitalismoari, etsaiei) errua bota barik gure eguneroko jarduna hobetzen saiatu beharko ginatke. Eta jardun hau gizartea aldatzeko baliatu. Etxetik hasita.

Bizi dugun egoeraz kexu gara maiz baina azken finean ez ote dugu daukaguna me-

rezi? Begibistakoa da presaka bizi garela, sarritan patxadaz bazkatzeko tarterik ere ez dugu hartzen. Eta badakit herri honetan hamaika gauza egiteko dagoela, hamaika injustizia salatzen dagoela. Baina kapitalismoaren kontra bagaude, gure bizitzeko moduak ere kapitalismoaren kontrakoak behar dute izan. Berak ezartzen duen erritmo zoro hortatik at.

Baserriak behintzat horretarako aukera eskaintzen du. Hemen legeak ezberdinak dira. Hemen naturak agintzen du, eguraldiak agintzen du, lurra agintzen du. Eta egongo da baserritar estreturik ere (ni barne), baina naturaren alde edo naturaren baitan bizitze horrek hirietan nekez topa daitezkeen baloreak sortzen ditu.

Gure gizarte hau epe laburrera begira bizi da. Baserritarrek oster, lehengo baserritarrek behintzat bai, epe luzeago pentsakera zeukaten. Egiten zituzten lanak (bideak, mugarririk, etxeak) ganoraz egin eta pentsatuak ziren. Denboran iraun zezaten, ondorengo belaunaldiak duintasunez jaso zituzten.

Aspaldian Euskal Herria osasuna galtzen ari dela ohartarazi

nahian gabiltza. Hainbeste AHT, autopista, zentral termiko, errauskailu, merkatalgune etabarrek gaixotzen ari gara. Bizitzeko oinarrikoak diren gauzak albo batera laga ditugu. Sasoiak sasoiko eta bertako produktuak jatea, naturaren erritmoak errespetatzea, lasaitasun apur batekin bizitzea...

Dena ez da beltza ordea, eta oraindik badago itxaropenerako tarterik. Gizarte urbano honen aldaketa baserritik etorriko da, elikadura subiraiztatik, halabarrez. Hau izango da gure iraultza txikia, sustrai zaharrak dituen bizimodu berri bat praktikan jartzea. Osasuna eta askatasuna.

ra etortzeko eskatu genien". Halako batean lurretara joan zitzaizkien baina, Aitorrek salatu duenez, "jada akta idatzita ekarri zuten eta beraien helburu bakarra guk hura sinatzea zen. Lurra markatzeko eskatu nien. Zuk balorazio bat egin duzu baina nik ere nirea egingo dut. Balorazioa egiteko lurra noiz markatuko zain egon ginen. Markatzen hasiko zirela uste genuenean, ordea, botatzen hasi ziren. Makinak sartzean, goraino kargatutako kamioien joan-etorriak hasi ziren. 24 orduz makinak, leherketak tokatzen direnean: goizeko ordubietan bezala arratsaldeko bostetan,... Ezin lorik egin".

Ez dute, beraz, Xabierrek eta Igarok kezkatuta egoteko arrazoi faltarik, Jaionek aurreratu dienez ere, "oso obra handia izango zela banekien baina tokatu arte ez



duzu irudikatzen norainoko mugimendua sortzen den. Izugarria da. 24 orduan, eguna joan eta eguna etorri, segurataz beteta, pala bakoitzeko patrol bat ondoan,... eta egiten ari diren txikizkia,...".

Bizi kalitatea

Aitor Esnaolak argi du: "nirezako bizi kalitatea patxadarekin lotuta dago. Honek ezartzen duen eredua

abiadurarekin lotutakoa da. Mac Donald's-a datorkit burura. Izugarriko abiaduran, mugimendu eroan bizi gara. Haraino lanera,... eta horrek, berarekin, bestea dakar: janari azkarra,... Tren honek abiadura hori elikatu egiten du. Ez du uzten momentu batean ere geratzen". Hausnarketa batek bestea dakar. Eta, hala segitu du Aitorrek: "Ura, lurra eta airea. Funtszko hiru elementu dira. Ez dugu bizitzeko gehiago behar. Baina zer egiten ari gara horietariko bakoitzarekin? Itsasoarekin nahiz mendietako ur putzuekin?

Lurrarekin? Arnasten dugun airearekin? Zenbait hurrek esnea Eroskitik datorrela erantzungo dizu. Berehala, urarekin ere gauza bera gertatuko da. Kezkatuko da. Ni, behintzat, oso kezkatuta nago". Bide horretan, topeak markatzeko beharra nabarmendu du. "Etxeak eraikitzeke baldintzak jartzen dituzte. Nik ura, lurra eta airea hartu eta pasaezinezko marrak marraztuko nituzke. Marra horiek idatzi egin behar dira. Adostu egin behar dira".

Barne gogoetekin jarraituz, "proiektu honek zerbaiterako balio behar badu, balio beza hausnartzeko", esan du Aitorrek. Horretarako, herritarrek obrak egiten ari diren lur eremuetatik paseatzera gonbidatu ditu. "Beren kabuz paseo bat ematera gonbidatzen ditut herritarrik. Nirekin joaten badira, kutsatu egingo ditut. Gauza bera gertatuko zaie ingeniari batekin joaten badira. Horregatik, obrak egiten ari diren inguruetatik bere kasara paseatzera eta gogoea egitera gonbidatzen dut jendea. Beharrezkoa da une batez gelditu eta pentsatzea. Kultur etxeak, liburutegiak,... bezala, geratu eta pentsatzeko guneak behar ditugu". Ibilaldi horren ondorio izan daitezkeen hitzordu baten berri eman du, berriaz, Xabierrek: otsailak 26an, 17:00etan, Tolosako Triangulotik abiatuta Abiadura Handiko Trena gelditzeke eskatuko duen manifestazioa egingo da. ☺



Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagirre
Gosariak eta meriendak
Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA
Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi
SEGURAS
BILBAO
Aholkularitza
integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK
Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Dantza, Lizartzako Ihauterien ardatza

Euskal Herri osoan barrena zenbait ihauterik sona eta ospe berezia dutela ezin ukatu. Mediatikoenen artean ezin kokatu Lizartzakoak, baina bai azpimarratu behar dugu usadioan eta tradizioan oinarritutako festa pagano herrikoiak direla. 300 bat herritarrek era batera edo bestera parte hartzen dute bertan. Dantza taldeko partaide eta festa batzordeko kide den Malentxo Arrospide herritarrak Lizartzako ihauteriak hobeto ezagutzen lagundu digu.

Naiara Roldán de Aránguiz

2011. honetan otsailaren 19an, larunbatean Lizartzako ihauteriei hasiera emango zaie eta astebete beranduago hurrengo urtera arte bukatuko dira. Hau otsailaren 27an izango da, herriko plazan ijitoa erretzen denean. Aipaturikoa amaiera izanik hasieratik abiatu behar festaz gozatu ahal izateko.

Otsailaren 19ko ekitaldien artean gibelaren dastatzea eta antzerki zein dantza ikuskizuna eskaintzen dira; Malentxo Arrospidek zehaztutakoaren arabera, ondorengo egunetarako giroa sortarazten dute

bertan. Udal ordezkariak eta txekorra plazan daudela gibelaren dastatzeak zer irudikatzen duen galdetutakoan, lizartzarrek antzinako ohiturei egin die erreferentzia: "antzinako ihauterietan astebete aurretik txekorra hiltzen zen, dantzariak eta ingurukoak jakia izan zezaten festak irauten zuen bitartean. Gaur egun ere astebete lehenago txekorra hil eta jakia prestatu dela adierazteko jaten da gibela".

Egun horretan bertan herritarrek ihauteriei buruzko gorabeherak azalduko dituzte *sketch*-en bitartez, antzerki

formatuan. Jarraian, 1993an sortutako Otsalar dantza taldeak euskal dantza tradizionaltak -Makil Txiki, Zortzikoa, Banakoa, Lantz...- eskainiko ditu. Otsalar dantza taldea sortu zen garaian "ihauteri dantzak ia 50 urtez ahaztuta egon ondoren berpiztu eta ihauteriak berriro berreskuratzeari" xedetzat hartu zuen eta gaur egun ere dantza zabalduz dihardu. Adin guztiak kontutan hartuta, 50 partaide arituko dira dantzan Lizartzan.

Hau honela izanik, ezin ahaztu Lizartzako ihauterien ardatza dantza dela eta bai-

ta berau inguratzen duten pertsonaiek ere. Txantxoak horren adibide dira. Txantxo itxuran jantzita zalaparta sortzen zutenak, gaur egun dantzariekin batera ibiltzen dira puske bilketan. Malentxok jakitera eman zuenez, base-rriz-baserri dantza egitearen ordainetan jateko zerbait biltzea izaten zen helburua eta gaur egun ere, ahalik eta jende gehiena festarekin harremanetan jartzen saiatzen dira.

Ihauteri dantzei dagokionean ordea, Malentxo Arrospidek ihauteri dantzak ez dakigu noiz sortuak izan



Egitaraua

Otsailak 19, larunbata

12.00. Ihauteriei hasiera emango zaie gibela dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan daudela. Ondoren antzerkia eta Otsalar taldearen eskutik dantza saioa.

Otsailak 25, ostirala

14.15. Eskolak antolatuta mozorro festa. Ondoren kalejira.

Otsailak 26, larunbata

07.00. Plazan elkartu eta kalejira dantzari, txantxo eta txistulariekin, 'Jeiki zaitzte Lizartzarrok' abestuz ihauterian hasiera.
07.30. Puske-biltzea; dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospeletik.
09.30. Etxe-zahar base-rrian geldialdia gosaltzeko.
12.00. Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Errota ataritik.
13.30. Ihauteri partaide guztiak kalejira, Arrateko zubitik irtenda.

Ondoren bazkaria herriko frontoian.

18.00. Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran plazara jaisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera. Taloen ondoren bertso poteoa tabernetatik kalejiran.

Otsailak 27, igandea

11.00. Agintari eta dantzariak Meza Nagusira, txistulariak eskainitako 'Agintari doinuaz' lagundurik. Ondoren hamaiketako plazan.
12.00. Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen, gurdi, mozorro eta gaine-rakoekin batera.
13.00. Lizartzako Ihaute Dantzak plazan.
14.00. Ihaute bazkaria herriko pilotalekuan. Ondoren txaranga, jokuak, zozketa, sariak...
20.30. Plazan 'ijitoa' errez ihauterian amaiera.

Diana abestia

Lizartzako Iñauteria

Lizartzarrek duela 12 urte sortutakoa bestelako ihauterietako doinu askorekin batera, Kasiano Iburguren, J.M. Esnaola... izenak tartean zirela. Ihauteri larunbata goizeko 07.00etan doinu honekin hasten da, kalejiran herria goitik behera zeharkatuz.

Jeiki zaitzte Lizartzarrok gaur hasten zaigu Iñauteria Goizean goiztik kalera irten da atera barrengo poz guztia. Ohitura zaharrak bete ditzagun goratuz beti gure herria Jeiki zaitzte Lizartzarrok gaur hasten zaigu Iñauteria.

(Musika)

Lizartzan gaur erok igerri gauza zuzenik ez dela agerihan eta hemen trakeskeri ugari dibertitzeko honunza etorri Deitzen digute 'ijito herria' zatoz eta ikusi gaur dela egia salto eta dantza hau dek umoria iraun dezala gure Iñauterian.

Hitza eta musika: J.M. Esnaola

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.


Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirik mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



LUAR NA LUBREko gaita, akordeoia, zarrabete eta konposatzailea

Bieito Romero

“Musika euskarri bereizgarrienetariko bat da, herriaren idiosinkrasia nabarmentzen duena”

Bieito Romero Luar Na Lubre talde galiziarreko kide dugu; gaita, akordeoia eta zarrabetea jotzeaz gain abesti askoren konposatzailea da. ‘Solsticio’ lan berriaren biraren hasieran murgildurik dauden honetan taldearen 25 urteko ibilbideaz eta musikak eta hizkuntzak herri baten izaeran duen garrantziaz mintzatu gara berarekin.

Naiara Roldán de Aránguiz

‘Solsticio’ lan berriaren bira hasieran murgildurik zaudete. Zergatik aukeratu duzue Tolosa biraren irekierarako?

Hurrengo asteak, hila-beteak oso baikorki aurkezten dira. Birak abenduan, Alcala lan izan zuen abiapuntu, bertan ‘Sols-

ticio’ disko berriaren aurkezpen ofiziala egin genuen eta otsailaren 11ko kontzertuarekin 2011ko antzokietako bira ofizialari eman diogu hasiera. Aurreneko kontzertua Tolosan izatearen zergatia kasualitatea izan da baina Tolosan hasiatea guretzat garrantzitsua da, izan ere Euskal Herrian betidanik oso ondo hartu izan gaituzue, beti etxean bezala sentitu izan gara. Zentzu honetan guretzat plazer eta ohorea da Euskal Herrian ‘Solsticio’ birari, gure lan berriari, hasiera ematea.

‘Solsticio’n erlijioa eta paganoaren arteko elkar bizikidetzari eta denboraren baitan tradizioak duen iraupenari egiten zaio erreferentzia. Zer irudikatzen du solstizioak Luar Na Lubreentzat?

‘Solsticio’ 12. diskoa da, 25 urtez musika egiten ibili ostekoa. Honako hau gure lehen zuzeneko grabatu ostekoa da. 2009an egin genuen A Coruña-ko Colón Antzokian. Zuzeneko lana burutu eta gero talde gehienek inflexio puntu bat jasaten dute. Zentzu honetan, guk ere horrela irudikatu nahi izan genuen, estilo aldetik aldaketa txikia egin eta bestelako bideetara gerturatzeke inflexio puntua izan da.

‘Solsticio’ izena jartzearen arrazoia, solstizioa kontutan hartu beharreko elementua delako; kultura gehienetan gurtzen den momentua da. Lotura horregatik kristautasunak hasieran gurtze paganoak zirenak kristau erritu bihurtu zituen; udarakoa San Juan eta negukoa Gabonak.

Egoera honen antzera, gure musikak jatorri paganoa eta erlijiosoa du: musika tradizionala, ahoz igortzen dena, erlijioarekin zerikusirik ez duena da. Bestetik Erdi Aroko musika ere topatu daiteke, erlijio zama handia duena. Solstizioak kristautasuna eta paganoaren arteko elkar puntua irudikatzen du, lan honetan horren isla antzeman daiteke.

Hertsiki musikari dagokionean zer da ‘Solsticio’k eskaintzen duena?

Luar Na Lubreko ohiko egiten duenaren bat-egitea da. Musika tradizionalaren berreskuratze lanari, berezko konposizioa gehitu behar zaio. Azken honek musika tradizionalan inspira-

zioa du baina alderdi berri batetik abiatuta. ‘Solsticio’n Erdi Aroko galiziar-portugaldar lirika ere aurki daiteke. Musika iturri hauetatik edateko aukera dugulako harro sentitzen gara; adibidez, Alfontso X. errege jakintsuaren lanetatik abiatzeko aukera dugu. Musika hau gure hizkuntzan abestia izan da, Erdi Aroko galegoan.

Erreferentzia iturri ere izan dira galiziar trobalariak eta Done Jakue bidea. Gure bide hau Europarekin batzeko atea izan da; Galiziar eragin oso garrantzitsuak erakarrit, munduko txoko ezberdinetako musika erakarrit. Garai horietan ezaguna zen mundutik, behinik behin, Europatik.

Disko honetan aipaturiko erreferentzia hauek guztiak topa daitezke. Musika tradizionala eta Erdi Aroko musikaren arteko nahasketa, galiziar kultura duena, musika zeltikoa.

8 kide; 7 gizonetako eta emakumezko bat, musika instrumentu ugari... Nola egin denek norabide berdinean aritzeko? Norbaitek zuzendari papera bete behar al du?

Bai, egia esan, beharrezkoa da koordinatzaile papera norbaitek burutzea, estilistikoki bidea zehaztuko duena. Niri dagokit, Luar Na Lubreko kide betearnoa naiz eta. Taldean lan egitea erraza da, oso ondo moldatzen gara, aspalditik ezagutzen dugu elkar. Taldekideek nigan konfiantza dute musika aukeratu eta hautatzeko garaian. Aukeraketa osteko lana berriz



ezberdinen bilgunea da.

Izan ere, kide guztiak ez dagoz folk edo musika tradizionalaren mundutik. Bestelako estiloak iturri dituzten taldekideak ere badaude; rock-a, musika klasikoa, fadoa, jazz-a, latindar musika... Musika guzti horren batuketa gure eremura ekarrit Luar Na Lubre-k berezkoa duen soinua lortzen da.

Luar Na Lubre-k lortzen duen soinu-ezaugarriaz ari ginen, zuen sekretua ere erabiltzen duzuen musika-tresna berezietan al datza -asko galiziarak?

Egia da, bai. Ez dago zalan-tzarik Luar Na Lubre talde galegoa dela, galiziar musikan sustraiak dituen. Erabiltzen ditugun instrumentuen artean galiziar izaera nabaria dutenak ageri dira: gaita, zarrabetea, akordeoia, perkusioa... Musika zelta horren barruan koka gaitzke, baina European zehar ematen diren bestelako musika estiloen barruan ere koka liteke gure musika, folk horren barruan, esaterako.

Sara Vidal lisboarraren ahotsak ere sonoritate berezia eskaintzen du...

Egia da. Sara oso ondo jantzia dago Portugal eta Galiziarreko musika tradizionalari dagokionean. Urte asko darama Galizian bizitzen. Horregatik, Galiziarreko musika oso gertukoa egiten zaio, ikerketak ere egin ditu. Bestetik ezin bere jatorria ahaztu, portugaldarra da, fado

taldean egin beharrekoa da. Honen fruitua Luar Na Lubren ematen den estilo

abeslaria. Honek ezinbestez abesteko moduan eragina du, estilo aldetik oso berezi eta pertsonala baita.

Galizia nonahiko elementua da zuen lanean. Luar Na Lubre galiziarra izatearen harrotasuna adierazten al du?

Noski baietz! Galizia gure ama eta andrea da. Guk galiziarrek izatearen harrotasuna igortzen saiatzen gara, galegoak izateaz harro gaude. Edonola ere, esan beharra daukat Luar Na Lubren Euskal Herrian, Venezuelan, Alemanian, Kuban eta Portugalen hazitako jendea dagoela. Honetaz gain, lau galiziar gaude taldean. Nahasketa berez taldeko ezaugarria da.

Harrotasun handia dago; goazen tokira goazela gure lurraldearen enbaxadoretzat dugu burua, Galiziar izateaz harro aurkezten gara, Galiziar buruzko irudi ezin hobea ematen saiatzen gara.

Luar Na Lubre aitortu izan du musika faktore kultural garrantzitsuenetariko bat dela galiziar herriaren ezberdintasun aberasgarriaren eskubidearen aitortpena...

Bai, musika edozein kulturatan euskarri garrantzitsu eta bereizgarrienetariko bat da, herriaren idiosinkrasia nabarmentzen duena. Herriek euren nortasuna hizkuntzaren, izateko eraren eta gehien bat bere musikaren bitartez zehazten dute. Adibidez, brasildar musikak Brasilgo parajetara ziztu bizian eramango zaitu, eskoziar musika oso erraz bereizten da... Gauza berdina gertatzen zaio galiziar musikari. Galiziar musikak bere izaera berezia du. Musikak gainera izateko era berezia ere zehaztu egiten du.



Zuen musikak galiziar sustraia izanik, zer nolako garrantzia du galiziar kantutegiak?

Garrantzi itzela du, gure lan osoan presente dago; bai idatzirik jasota dagoen kantutegia eta baita guk jasotzen dugun musika ere. Zorteko gara, Galizian gaur egun ahozotasuna oraindik bizirik dirau. Edozein herrixkatan abesten edo bertako instrumentua jotzen duten pertsonak topa daitezke. Kantutegiak balio digu, inspiraziorako erabilgarri dugu. Guk egiten dugunaren parte garrantzitsua da.

Eta galegoa, hizkuntza modura?

Hizkuntzak erabateko lotura du guk egiten dugunarekin. Lehen aitortu bezala, oinarrietako bat musika dela esan badugu bestea hizkuntza da. Hizkuntzak mundua ulertzeko era zehaztu egiten du. Galegoa hizkuntza xarmenta da; egiten dugun musikarekin bat datorrena. Ez luke zentzurik beste hizkuntza batean abesteak. Gure artean komunikatzeko ere galegoa erabiltzen dugu.

Konposizio lanak garrantzi handia du; lan honetan gainera zer

esan handia duzu. Zer nolako oihartzuna izan zuen Mike Oldfield-entzat 'O Son do Ar' konposatzeak?

Egia esan nik ez nuen Mike Oldfield-entzat konposatu. Nik Luar Na Lubre-entzat konposatu nuen eta Mike Oldfield-ek abestia hartu eta bere diskotako batean sartu zuen. Gertaiz garrantzitsua izan zen.

Nire ustez oso garrantzitsua da musika tradizionalan oinarria duten abestiak sortzea bairaziorako erabilgarri dugu. Guk egiten dugunaren parte garrantzitsua da.

Mike Oldfield-ena kasualitate zoragarria izan zen. Konturatu gabe horretan sartu ginen, eta ni bereziki, abestiaren egilea izateagatik. Oso ezaguna bilakatu zen diskoa pertsona ugariaren belarrietara iritsi baitzen; baita atzerrian ere. Gaur egun ezagun izaten jarraitzen du.

Mike Oldfield-k gure abesti bat grabatzeak gure proiektua neurrietatik at atera zuen. Hala ere, gure proiektua berez sostengatuko ez balitz, ez luke ezertarako balioko Mikel Oldfield-k abesti bat, bi edo lau grabatzeak. Guk gure bideari ekin genion, ondo moldatu gara, bitan urrezko diskoa eskuratu eta era iraun-

korrean lanean jarraitu dugu. 25 urte daramatzagu gure musika egiten.

Nolako izan da *Doentes* (Gai-xoak) filmeko musika konposatzea?

Oraingoz ez da zineman estreinatu. Filmanova ekoizle etxeak proposatu zuen. Oso esperientzia polita izan da lehenengoz pelikula baterako musika konposatzea. Esperientzia benetan ederra izan da. Oso lan soila egin dut, minimalista, baina oso pozik geratu naiz. *Doentes* galiziar ekoizpe-na maiatza aldera estreinatuko da.

Mundu osoko eszenatokietara igo zarete baina galiziar ikusle-goaren aurrean jotzea berezia al da?

Bai, baina egia esan galiziarrek ondoegi ezagutzen gaituzte. Hala ere, Galizian jotzeak eta bereziki norberaren hirian jotzeak hunkitu egiten du. Presio positibo bat ere sortzen dizu gorputzean. Galiziar publikoak ondo ezagutzen du gure musika eta oso esker onekoa da. Bertako publikoak aintzatetsi gaitu eta bertan jotzea gustu-

ra hartzen dugu baina baita kanpoan jotzea ere. Galegoz abestuz, egiten dugun musika eginez, jende askorengana helitzen gara.

Nik ospetsua den esaldi hori, musika hizkuntza unibertsala dela esaten duena, Luar Na Lubreri esker baieztatu ahal izan dut. 23 herrialde baino gehiagotan egon gara, inoiz amestu ez ditudan herrialdetan jo dugu, pertsona eta kultura zeharo ezberdinetzat eta guztietan gurekin bat egiten zutela sentitu ahal izan dut. Hizkuntza zeharo ezberdinekin sekula ez dugu inolako arazorik izan. Guztiz kontrakoa, pertsona askok Galiziarrekiko interesa erakutsi dute; gure musikarekiko, gure hiriekiko... musikaren bidez, enbaxadore unibertsalaren papera betetzen dugu.

Tolosan zuek ikusteko aukerarik izan ez dutenek maiatza aldean berriro ere Euskal Herrian bueltan izango zaituztete (Billboko Kafe Antzokian edo Herri Urratsen, esaterako). Euskal kulturak eta galegoak era berezian elkar ulertzen al dute?

Euskal kultura eta galegoa atlantiko eremuan kokaturik daude, biok herrialde marinelak gara, landa-herriak paisaia berdearekin, izateko era antzekoarekin, alor askotan era zuzenean konektatzen duen musikarekin. Euskaldunak eta galegoak elkar ondo ulertzen dugu. Nahiz eta hizkuntza ezberdinak izan, zuzeneko konexioa dago. Urte askotan Euskal Herrian izan gara, eta bertan jo izan dugun guztietan bikain hartu gaituzue. Askotan gure etxean baino hobeto. Horregatik Euskal Herrian jotzea guretzat oso handia da. Gure birari Tolosan hasiera ematea zoragarria izan da, Tolosan jo dugun lehen aldian izan da.



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Gabonetako ospakizunak atzean utzi ditugu eta urte hasierarekin batera, zaintzeko ordua iritsi da. Batzuei, gorputza martxan jartzea gero eta gehiago kostatzen zaiela diote. Beste batzuk ordea, ederki mantentzen omen dira. Adinak aurrera egiten duen heinean, aldaketak ere gero eta nabariagoak izaten dira gehiengoentzat, ezta?

Koxk! Jaten duguna gara

Gorputzak pixkanaka nahitaezko inboluzio prozesu bat hasten du eta horrekin batera fisikoki eta metabolikoki ere aldaketak gertatzen dira. Ondorioz, maila funtzional eta fisikoan jaitsiera bat gertatzen da. (Batez ere berrogei urtetik aurrera).

Zaila da zehaztea zein momentutan hasten den prozesu inbolutibo hau. Garbi dagoena da faktore askoren eragina duela, baina batez ere, bizimodu-ohiturena. Prozesu honi aurre egiteko jardura fisikoa eta elikadura egokia ezinbestekoak dira.

Kasu hauetan sistema hormonal nabarmen aldatzen da. Gizonezkoetan testosterona eta emakumeetan estrogeno kopurua erabat gutxitzen da. Aldaketa hormonal hau da aldaketa metaboliko guztien arduradun nagusia, eta ondorioz, orga-

nismoak izango dituen aldaketa fisikoena.

Erritmo metabolikoaren jaitsiera da beste arrazoietako bat. Gure organismoak gero eta energia gutxiago behar du oinarritzko funtzioak mantentzeko eta ondorioz, errazagoa da erreserbako gantza pilatzea: intraabdominala gizonetan, eta sabelaren behealdean emakumeetan.

Aipatutako aldaketa guztien eraginez jasaten ditugun ondorioetako batzuk, guk erregulatu ditzakegu ariketa fisikoa eta elikaduraren bitartez.

Sarri entzuten ditugu "jaten duguna gara" eta antzeko esakerak. Hauek gero eta arrazoi zientifiko handiagoa dute, ikerketen arabera lotura handia baitago zenbait elikagai eta osasunaren artean. Adibidez, brokoliak zenbait tumore ekiditen omen ditu, edo arraia asteen behin jenez garunari

laguntzen omen diogu buruko narriadura atzeratzen.

Badirudi, elikagai mota hauek, "sirtuina" delako proteina batzuk aktibatzen dituztela, biziraupenari lagunduz. Elikadura eta osasunaren inguruan dagoen interesa dela eta "nutrigenomika" edo "geneei egokitutako elikadura" izeneko ikerketa alor berri bat zabaldu da. Imajinatzen duzue mediku batek gure mapa genetikoaz aztertuz zein elikagaiak kalte egiten diguten aholkatu ahal izatea? Momentuz ikerketak besterik ez dira.

Hori guztia horrela izanik, gure esku ere badago osasunari lagunduz bizi iraupena lauzatzea. Horretarako lagungarri izango zaizkigun zenbait elikagai sailkatuko ditugu:

-Brokolia eta Erromeroa: zenbait minbizi ekiditen laguntzen du.

-Zitrikoak: C bitamina kopuru altua dutenez, garrantzitsuak dira azalaren narriadura ekiditeko.

-Azenarioa: ikusmena ongi mantentzeko.

-Gelatina: artikulazioak sasoi onean izateko.

-Sesamoa: hezurak indartsu mantentzeko.

-Tea: bere flabonoideak adimena arin mantentzen laguntzen dute.

-Fruta: katarroak ekiditeko eta hesteak erregulatu eta orekatzeko.

-Errefaua: gibela osasuntsu mantentzeko.

-Piperrak: alergien sintomak gutxitzeko.

On egin!

Otsailaren 26an, larunbatean, herritarren festa

Anoetako Dantza-Soka eguna, herriak berreskuratutako ospakizuna

Dagoeneko usadio bihurtzen hasita dago, gutxienez 30 urtez galduta egon den Anoetako Dantza-Soka eguna. Garai batean Anoetako herritarrek San Joaetan ospatzen bazuten ere, herriko koadrilek 2003an berreskuratu zutenean inauterien aurreko larunbatean kokatu zuten, Kalderero egunez.

Naiara Roldán de Aránguiz

Dantza-Soka Euskal Herriko herri gehienetan dantzaten den dantza multzoa da. Gaur egun, Anoetan festa eta erreferentzia bilakatu da bertako bizilagunentzat. Aurtengoan otsailaren 26an, larunbatean, ospatuko badute ere, entseguekin hilabete lehenago has ten dira. Ezinbestekoak dira entseguekin eguneko dantza -Axeri Dantza, Desafioa, Aurrekua, Arin-Arina eta Fandan-

goa- behar bezala dantzatu ahal izateko. 2011. urte honetan parte hartzaileei dei berezia egin zaie entseguetan parte hartzeko, izan ere aldaketa batzuk egin nahi izan dituzte antolatzaileek. Anoetako kultur zinegotzia den Gorka Otxoa-Aizpuruak azaldutakoaren arabera, aurreko urtetan emakumeak eta gizon- ezberdinetan, bazkaldu aurretik

eta ondoren, dantza egiten bazuten ere, aurtengoan txanda bakarrean, bazkaldu aurretik, denak elkarrekin arituko dira.

Honek dantza beraren egituraketan ere aldaketa batzuk ekarriko ditu. Esaterako, orain artean aureskulari eta atzeskulari papera betetzeko lau protagonista izan baditu ere, lan bakoitzerako mutil eta neska bana, aurten bi dantzarietako batek ez dute ohore hau izango. Mutil batek atzeskulari papera beteko du eta neska batek aureskulariarena.

Gorka Otxoa-Aizpuruak zehaztutakoaren arabera, goizeko 8.30ean baserriarrez jantzitako 90 bat dantzari elkartuko dira herriko plazan. Ondoren, trakoretan igo eta bi taldetan banatuta, Anoetako baserrietara abiatzen dira euren

dantzak eskaini ahal izateko. Goi Bailara eta Behe Bailarako basetxeak erreferentzia hartuta -Axibar, Bideondo, Zumalikardi, Ateaga-Etxeberri, Etxeberri, Sarobe, Allegi, Erausi, Barrundi, San Juan, Argindegi, Iturgaitzaga...- baserriarrei ondoren plazan izango den ikuskizuna aurreratzen diete.

Baserrietatik bueltan, 90 partaide hauek herritarren aurrean dantza plazan egiten dutenean iristen da eguneko momenturik garrantzitsuena. Hanka zein besoek mugimendu, salto eta pausu ederrak goiz osoan zehar eskaini ostean, eta nekea gorputzean dutela, atsedenerako eta indar berritzeko unea helduko

da Kuku Elkarteko babarrun jatearekin.

Bazkari, postre eta atsedeneren ondoren herriko trikitilarietako kalejira girotuko dute arratsaldeko 18.00etan hasita, ordubetez. Orduan, testigua Itzel taldekoek hartu eta erromeria kontzertua eskainiko diete bertaratutako guztiei, dantzarako aukera ahalbidetuz.

Anoetako kultur zinegotziak eskertu nahi izan du egun osoan zehar Dantza-Soka ospakizuna aurrera eramaten laguntzen duten norbanako guztiei -dantzariak, traktore gidariak,

sukaldariak, talogileak, erromerian eta kalejiran parte hartzen dutenak...-. Eragile guztiak presente izan ditu Otxoa-Aizpuruak, Gazte Asanblada, Kuku Elkartea, Talogileak...gogora ekarri festa honen xedea herritarren parte hartzea bultzatzea dela.

Azkenik, Otxoa-Aizpuruak aitortutakoaren arabera, festa egun hau herritarrei zuzenduta egon ohi da eta kanpoko bisitarik gehiegirik ez da gerturitzen. Hala ere, dantza eta erromeria gustuko dutenek ateak zabalik izango dituzte Anoetako plazan.

Dantza-Soka

Dantza-Soka dantzarietako elkarri eskuak emanda osatutako soka edo katean egiten den dantza da. Dantzarien soka borobil irekian aurkezten da plazan, eta sokaren bi muturretan azalduko diren bi dantzarietako bakoitzak, auresku edo aurrendari eta atzesku edo azkendari izenekoek, gidatuko dute dantza.

Izen ezberdinez ezaguna

Euskal Herriko herri asko eta askotan dantzaturiko dantza da baina aldaerak aldaera herri bakoitzak izen ezberdina ere erabiltzen du. Anoetan Dantza-Soka ezagun egindakoa, bestelako gunetan Soka-Dantza, Esku-Dantza, Gizon-Dantza, Aureskua, Karrika-Dantza izenez ere deitzen dute.

Egitaraua

- 08.30 Plazan elkartu
- 09.00 Baserrietara abiatu
- 12.00 Dantza Plazan
- 14.00 Babarrun jatea Kuku Elkartean
- 18.00 Kalejira herriko trikitilarietako
- 19.00 Erromeria Itzel taldearekin

Taloak egongo dira hurbiltzen diren guztientzat.



ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiluak
Beirate artistikoak
Dubxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUTAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondokoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com



Tolosa Bit

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulu daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikotituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldia eta komunak. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minututa. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

Salgai

• Igin markako akordeoia saltzen da. Taminaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurdixoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Limosin arrazako 6-8 hilabeteko txerok idiskoa erosiko nuke zezenentarako. Kartaduna. 943694736 / 618185337

Horoskopoa

Otsailaren 18tik martxoaren 4ra arteko aurreikuspena

aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Maitasunerako egun aproposak, zure izaeraren onena agerian utziko duzu. Zure lagunen, babesleen eta maite duzunen babesa nabaritu duzu. Bidaiazteko eta mugitzeko egun ego-kiak.

taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Garai garrantzitsua baina ez eroso kontu sozial eta materialetarako. Arrakasta lortzeko aukera; garaipenean amaituko diren ahalegin eta borrorak. Aprobetxatu beharreko egunak.

gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Zortea aldeko izango duzu ekonomiko zein afektiboki. Ekimen berriak martxan jartzeko unea, iraganeko oztipoak gailenduz. Bizitzari ikuspuntu aldaketa eskainiko dizkieten bidaiak.

cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Aldaketarako desioan murgildurik zaude, bizitza aro berri bati ekiteko gogoz arlo profesionalean edo pribatuan. Errealitate bilakatuko da. Oinordetza edo herentziaren bat jasotzeko aukera.

leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Egun hauetan garrantzitsua erlazioak izango dira, inguruan duzun horri gertatutakoak hartuko du garrantzirik gehien. Epaiketetan garaipena izango duzu, zure eskubideak agerian geratuko dira. Etsaiak gailenduko dituzu.

virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Egun hauetan lan kontuetan murgildurik egongo zara, indarrak horretan utzi. Batzuetan bokazioak aginduko du baina besteetan egoerak. Ez da garai erreza ezta atsegina ere izango. Estresak eta nerbioek bere eragina izango dute osasunean.

libra

Irailak 23-Urriak 22
Zorionekoa izango zara, batik bat maitasun kontuetan. Maitasun-harremn bat harreman serio bilakatzeko aukera. Lan sortzaile eta bokaziozkoa izanda, arrakasta aldeko izango duzu.

scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Familiak erabateko atentzioa eskuratuko du; gertakizun garrantzitsuak emango dira. Egun oparoak etxean lan egiten baduzu. Familiak laguntza handia eskainiko dizu eta baita ametsen bat eskuratzeko babesa ere.

sagitarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Harremanetarako egun aproposak; maitasun, adiskidetasun zein lanbide harremanak. Erlazio hauetatik onuraren bat eskuratzeko parada. Bidaiazteko garai polita, jarduera fisiko zein intelektualei denbora eskainiz.

capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Egun hauetan diruak ohiz kanpoko garrantzia hartuko du; energia gehiegi eskaini beharko diozu gai honi. Hala ere, gehienetan ondorio bikainak lortuko dituzu. Beti ere, kontuan izanda gehiegi gastatzea ez dela onuragarria izaten.

aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Diriratsu egongo zara egun hauetan eta horrek gertakizunetan ere bere eragina izango du, aldeko egunak izango dira. Bizitasunez bete egongo zara; borroka, erronka eta esfortzu ezberdinen protagonista izango zara. Lehiakideak gailenduko dituzu.

piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Irrikatzen duzun horrengatik borrokatzeko unea heldu zaizu; besteengatik egitekotan ondo aterako da baina soilik zureari erreparatuz gero zailtasunak izango dira nagusi.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

Maritxu
arropa konponketak
Lanua Kalea - behe - 20400 TOLOSA - Tel.943 11 55 37

IGELTSERITZA ETA PINTURA
IÑAKI OTAEGI MUGIKA
Rondilla 46, 2 centro
Tolosa 20400 (Gipuzkoa)
Tel. 630.717.132
iotaegim@gmail.com

Ondo pasa Inauterietan!
Antxoni
Arropa Denda
Berdura enparantza, 4 • Tel.: 943 670 032 • Tolosa

PLAN RENOVE LEIHOETAN
Leihopro
ALUMINIOZKO LEIHOAK
PVC - EZKO LEIHOAK
DESKONTU BEREZIAK
943 69 84 39

SAGARDOTEGIA
JATETXEA
URRITZA
Area 7-Urtaki industriagunea
(beheko solairua)
20150 Aduna
Telf: 943 69 33 96

LARRE-GAIN
Bertako sagarrarekin
egindakoa
Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46

HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 EGUN behar izaten ziren gorputz bat baltzamatzeko

2,3 MILIOI

harrizko bloke erabili ziren piramide handian



6.000 €

kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltzamatzea

3.500 GAUZA

balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoltzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

25 urte
TOLOSAN

